



## ESKOLA KIROLA - HIPIKA 2024-2025

### IZENA EMATEKO ARAU OROKORRAK

1. 2024-25 ikasturterako HIPIKAN izen-ematea entitateek edo kirolarien gurasoek eta tutoreek egin ahal izango dute, <http://www.bizkaia.eus/eskolakirola> webgunearen bidez.
2. Gurasoen inskripzio bakoitzean gehienez hiru (3) parte-hartzaile inskribatu ahal izango dira, eta horietako batek, gutxienez, izena ematen duen pertsonaren semea edo alaba izan beharko du.
3. Izena emateko epea 2024ko irailaren 16ko 15:00etatik aurrera izango da.
4. Ikastaroak 2024ko urritik 2025eko ekainera bitartean egingo dira.
5. Izena emateko kuota **60 €**-koa da I. mailan eta **80 €**-koa II. mailan parte-hartzaile bakoitzeko. Aurreko urteetan HIPIKA ikastaroan parte hartu duten ikasleek II. mailan eman beharko dute izena.
6. Ez da ordainketarik egin behar, ez eta frogagiririk erantsi behar ere, Federazioak plazaren esleipena posta elektronikoko bidez berretsi arte. Bertan, ordaintzeko moduak adieraziko dira.
7. Izena emateko prozesuan, Lehentasun gisa, Klub aukerak, datak eta ordutegiak egongo dira eskuragarri.
8. Plazaren esleipena inskripzio-ordena zorrotzaren arabera egingo da, Federazio honen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean sinatutako hitzarmenaren arabera libre dauden plazen kopuruaren arabera. Izen-emate kopurua libre dagoen plaza kopurua baino handiagoa balitz, izen-emate horiek itxaron-zerrenda batera pasatuko lirateke.
9. **Ezin izango da inskripzio-kuota itzultzeko eskatu**, ezinbesteko kasuetan izan ezik.